


www.noaua.com

# Noaua!!!



Abenduaren 8an, Pirritx,  
Porrotx eta Marimototsen saioa



Ekitaldi bete dator

Mendi Astea



**URDAIRRA**

**Sagardotegia**  
Sagardo naturala  
Abenduak 17 **BARRIKOTEA**  
**20.00h Urdairan**  
astalehenak itxita

Aginaga  
943 37 26 91



Marka berriak  
aurkituko dituzu!

skunkfunk

emerillimon

PRIVATA

**Marije**  
Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - **USURBIL**



ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK

GORROTXATEGI

# Hator, hator...

**Alkartasuna**  
Usurbilgo Baserritar Kooperatiba  
alkartasuna@usurbil.com  
www.alkartasunausurbil.com  
Riallu industrialdea 6-26  
☎ 943 361 114

Darbolina      Abarrak, txapeiak, galtzetinak...      Pazko loreak      Gabeñetako otarrak      Ardoak      Egutegia



Albistea iruditan!

## Lan gatazka luzatzen ari da Michelinen

Asteazken honetarako, azaroaren 30erako ordubeteko lan-uztea deitua zuten Michelingo langileek. Asteotan burutu duten hirugarren mobilizazioa da honakoa. Gaurkoz ez duten lan hitzarmen duin bat eskatzen diote enpresako zuzendaritzari. Langileen sindikatu guztiek bat egin dute aipatu eskaerarekin. Horren erakusle dira, asteotan burutu diren lan-uzteek langileen artean izan duten erantzuna. Sindikatuek berri eman dutenez, azaroaren 23koan 300 langile bildu ziren Lasarteko lan-tegi aurrean.

Bi aldeek orain arteko negoziazioetan ez dute adostasunik lortu. Lan



ORDUBETEKO LAN-UZTEAK EGITEN ARITU DIRA ASTEOTAN.

gatazka konpontzen ez bada, abendu honetatik aurrera mobilizazioak

gogortuko dituztela iragarria dute langileek.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UGAITZ AGIRRE

## Historiako apunteak

Zer ote da Historia? Igande arratsaldean autobusa hartu Siberia aldera joateko hurrengo egunez asteari ahal den gogotsuen ekiteko. Arratsaldeko zortziak aldera ilun dago eguna urteko sasoi honetan eta libururen bat irakurtzen edo apunteak aztertzen edo besterik gabe musika baxu-baxu ipini belarri alboetan eta leihotik begira joan lo hartzen den arte. Eta horrelako une bakartietan pentsatzen jartzen zara ea zergatik sartu ote zinen lau urteko karrera horretan, zergatik Historia eta ez beste edozer gauza bizitzaren bide zidor guztiak gainditzea errazago egiten dutenak. Mikel Urdangarinen kantu malenkoliatsu batetik Freddy Mercury-ren ahotsera jauzi du erreproduzioak. Militantziagatik gauza gutxi egiten dira gaur egun.

Lehen urtean galdera horren erantzuna topatu nahian ibiltzen zara eta aje egunak besterik ez dira tokatzen begien parean bata bestearen atzetik. Ostegunak. Onak, oso onak direla diote adituek Gasteiz aldean. Kutxi eta Gaztetxia, katu balzak toki guztietatik miauka. Eta goizetan, ahal den heinean lanak aurreratzeari ekiten diozu Bibliotekan, bidean lanera doazen trajedun gizonak gurutzatzen direlarik Daton barrena. Jubilatua petankan. Eta liburuak irakurtzen dituzun bitartean aurreko ostegunean mosuak konpartitu zenituen neskarekin topo egiten duzu eta irri batekin agurtzen dizu "zortzietan Hala Bedin" izkiriartzen dutelarik bere ezpainen. Baina Historiari buruzko erantzunik ez duzu topatzen sazerdote drogazale eta ex-voto artean, ez eta Goi Erdi Aroko Inperio Frankoan ere.

Irakasleak emandako bibliografia gomendagarriak ere ez duzu paradarik topatzen Historiaurrekoak beste horrenbeste eta gehiago irakurtzea eskatzen baitizu. Baina hori sistemaren arazoak dira, komunikazioaren eta inkomunikazioaren arteko erlazioak.

Eta bigarren urterako lagun berriak ere ohiko bihurtzen zaizkizu. Eta askotan irakaslearekin baino gehiago ikasten duzu beraiekin bazkari eder baten konpainian garagardo eta zigarro artean. Orduan konturatzen zara garaituak beti idazten dakie-la, baina orri beltzak ez dituela haizeak urratzen. Eta saiatzen zara irakaslea irteera bako kaleetara eramaten eta zure ezagutza berea baino handiagoa dela erakusten, baina alderdi ilunenean gordeta dituen kartan mahai gainean pausatzen dituen emeki begirada koaderno gainean ezartzen duzularik esandakoa onartu ostean berau orri zuriaren gainean idazteko. Auto istripu bat dagoela dirudi Aretxabaleta parean, stand by me. Konturatzerako Araban gaude.

Horrelako uneetatik ikasten zure artxibo propioa handitzen doa eta jada konturatzen hasten zara hasieratik planteatutako galdera oker plantatuta dagoela. Ez da zergatik sartu zaren Historia ikastera gainontzeko guztiak erotzat hartzen zaituzten bitartean sufritu zutelako bere garaian azterketa gainditzeko. Kontua da zer eskain diezaiokezun albokoari Historiaren bitartez. Medikuek pertsonak sendatzen dituzte edo mina arindu lehenengoa ezin bada burutu. Historialariak gizartearen iragana aztertzen du soziologoenak ez dezan berriz ere harri berberarekin tupust egin. Baina Kulturen inbertitza zaldi elbarriaren alde apostu egitea bezalakoa dela pentsatzen dutenez eta krisiaren eta terrorismoaren aitzakiak ipintzen dituzten garai hauetan, ba historia plazer duenaren militantziaren arabera zabaltzen da gizarte osora. Akaso iragana (berez existitzen ez dena) ezkutatu nahi dutelako edo bestela gustatu egin zaigulako harri berarekin tupust egitea.

Iritsi gara helmugara, Calle Melancholia live, zerbait afaldu eta laster ohera bihar egun gogorra, eta seguruenik oso hotza izango baita.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

### Ika-mika

## Euskarazko hedabideek erakundeen konpromisoa behar dute

Bederatzi hilabete badira euskarazko hedabide ez publikoak agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genituela, hiru helburu nagusirekin:

-Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea.

-Erakunde publikoek sektorearekiko konpromiso handiagoa eskatzen zitzaie.

-Sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusiak erakundeekin lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen.

2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezagarriak dira.

1. 2012rako aurrekontu proposamenen jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako

Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituen diru laguntzak ezerezean dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskara sustatzeko diru partida. 2011ko bigarren epeldiko laguntzak desagertzeko arriskua ere handia da.

2. Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartzen badira, 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusi du. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurrekontuetan diru saila handitzea aurreikusi duen bakarra —%12ko igoera—.

4. Eta zer esanik ez Iparralderi buruz, non euskaldun hiztunen galera bizkorra anbizio-

rik gabeko hizkuntza politika batekin paraleloan doan.

Guk geuk ere aztertu behar ditugu gure indargune eta ahuldadeak, sektorean elkarrekin jardunda errazagoa izango zaigu garai zail honi aurre egitea. Zeregin horretan ari gara hilabete hauetan. Baina argi dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dugula erakunde publikoen laguntza handiagoa, eta hori ari gara aldarrikatzen une honetan.

Erakundeek publikoki eskatzen diegu gaiaren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, partidak handituz.

**Euskarazko hedabide ez publikoak (tartean, NOAUA! astekaria)**

## Ia 600 sendi hondakin organikoa ongarrri bihurtzeko lanean

**E**rrekatxiki kaleko belardira geruratzen denak, aurrerantzean Usurbilgo lehen konpostaje komunitarioko esperientzia gunearekin topo egingo du. Larunbatean inauguratu zuten, Udal, Foru Aldundi, Mankomunitate edota zenbait eragileetako ordezkariak bertan zirela; tartean, Usurbilgo Udaleko Bildu eta Aralarreko zinegotziek parte hartu zuten ekitaldian, baita Aldundiko ingurumen diputatu Juan Carlos Alduntzin edota Usurbil Zero Zaborreko kideek ere.

68 sendik izena emana dute jada Usurbilgo Udalak, Foru Aldundiak eta Usurbil Zero Zabor taldeak bultzaturiko konpostaje komunitarioko egitasmoan. Baina hondakin organikoa ongarrri bihurtzeko lanean dabiltzanak askoz gehiago dira, badira ia seihun sendi Usurbilen. Azken urteotan autokonpostajea burutzen duten herriko beste 500 familia dau dela ez baita ahaztu behar.

Kaxkoko Errekatxiki kalean inauguratu eta martxan da jada, Usurbilgo konpostaje komunitarioko lehen esperientzia gunea. Azaroaren 26an burutu zen ekitaldian, bertaratu ziren ordezkari politiko, teknikari eta herri eragileen aurrean, ingurumen eta nekazaritza alorreko udal



ERREKATXIKI KALEAN INAUGURATU BERRI DA KONPOST-GUNE KOMUNITARIOA.

zinegotzi Jose Maria Rivadeneyrak gogorarazi zuenez, Gipuzkoan hondakinen politika eraginkor baten alde emandako beste aurrerapauso bat da Usurbilgo konpostaje komunitarioko egitasmoa. Herritarrek egindako ekarpenaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen Rivadeneyrak. "Hondakin hobereña herritik ateratzen ez dena da, sortzaileak berak kudeatzen duena", adierazi zuen.

### Erraztasunak hasi nahi dutenentzat

Lehen esperientzia gunea zabalik eta martxan da Errekatxiki kalean, baina iragarri zutenek, gutxienez beste hiru gune

ere zabalduko dira Kaxko inguruan.

Ekitaldian parte hartu zutenek, konpostaje komunitarioa egiten ari direnei edota aurrerantzean egiteko asmoa dutenei, lasaitasun mezua helarazi nahi izan zieten, erraza dela gogorarazita. Ez baita ahaztu behar; parte hartzaile guztiek alde aurretik prestakuntza ikastaroa jasotzen dute. Gunea bizilagun talde batek erabiltzen du, eta guztien izenean arduradun bat izendatzen da. Organikoa ongarrri bihurtzen duten herritarrei %40ko hobaria aplikatuko zaie hondakinen tasan. Interesdunek, Atez Ateko bulegoan eman dezakete izena.

## Giro ona, Erraustegiaren Aurkako Egunean

**K**onpostaje komunitarioko lehen esperientzia gunea inauguratu zen egunean, ITAYA Gazte Asanbladak Erraustegiaren Aurkako Eguna antolatua zuen. Hauxe bilgunetik, joan den larunbatean burutu ziren ekitaldien haritik, NOAUA!ko web orrialdera helarazi duten balorazioa:

"Larunbat goizean hamaiketakoaren ostean gazte kuadrila eder bat Mikel Laboa plazan elkartu eta Letamendiko obretara abiatu ginen. Hala ere, harrera Santuenea parean egin zigun ertzaintzak obretara sartuz gero atxilotuak izango ginela mehatxatuz. Bidean aurrera

jarratuz zubietarrak eta lasartearrak batu zitzaizkigun, hauek ere jabetu ziren ertzaintzaren jarrera oldarkorraz obretara iritsi ginenean zain baigeneuzkan bideo-kamerarekin. Hantxe mokadutxo bat egin ondoren herrira itzuli ginen Berri-tik barrena. Arratsaldeko mahai inguruan erraustegiaren aurka egiteko erarik onena alternatibak badauzkagula eta emaitzak badituela da. Kontsumo-joerak aldatu behar direla ere azpimarratu zen.

Ondorengo kantu-jira ere ederra izan zen, hor ibili baikinen gazte eta ez hain gazte kalean gora-kalean behera kan-

tuan. Herri afarian giro aparta egon zen (ehundik gora ginen afaritan) eta bertsolariak ederki barre eginarazi ziguten. Azpirozek bertso saioari amaiera bikaina eman zion "Itayak zorroztu, belar txarrak errotik moztu" esanez. Gaueko kontzertuak ere dantzan jarri zuen jendea eta parranda goizalderarte luzatu zen. Bukatzeko, bizilagunei barkamena eskatu nahi diegu enbarazuengatik eta lotsagarri iruditzen zaigula ganean zehar batzuk izan zuten jarrera zikina, Askatasuna plaza zerritoki bat bihurtuaz baitzuten. Gaur inoiz baino ozenago: Erraustegi Erraustu!!!".

Alaitz Aizpurua, Euskara Kultura eta Gazteriako zinegotzia

## “Kultur Aholku Batzordea altxor bat da”

**L**egegintzaldi berriko Kultura Aholku Batzordea biltzen hasi da jada. Parte hartze prozesu osteko lehen saioa burutu dute. Kultura, euskara eta gazteria alorreko zinegotzi Alaitz Aizpuruak dakartza lehen bilkurak emandakoen zehaztasunak, baita aurrera begira jorratu nahi duten bidearen nondik norakoen berri ere. Irekitzearen kultur etxearen egitasmoa zertan den ere azaldu dio NOAUA!-ri.

**NOAUA! Zer nolakoa izan da Kultura Aholku Batzordearen itzulera?**

**Alaitz Aizpurua.** Usurbilen kultur mailan duguna, Kultur Aholku Batzordea altxor bat da. Aholku Batzordean hogeitik gora talde edo norbanako biltzea, parte hartze prozesuan izan eta jarraitzeko gogoia izatea... Usurbilen aberastasuna dugu kultur mailan eta kultur eragileen aldetik. Maiatza arte luzatu zen parte hartze prozesuan, bost lan ildo planteatu ziren. Horien epekatzea landu da aholku batzordean. Baina nabarmen-tzekoa da baita, parte hartze prozesuak utzi duen kontzientziatzea.

**N. Parte hartze prozesuan lan ildo desberdinak landu zenituzten.**

**A. A.** Bost ildo daude, bakoitza bere helburu eta ekintzekin; kultura balioan jartzea, herritarrak, auzoak, taldeak eta kultur antolamendua egitea. Ildoetako bat da, mugimendu eta eragile guztiak balorean jartzea eta denboran zehar ere elkarlana sustatzea. Horri bidea eman eta eutsi behar zaio. Koordinazio lana dago bestalde, taldeak bata bestearekin harremanak izatea. Auzoak eta herriak batak bestearen osagarri izan behar dutela ere ikusi dugu.

**N. 2012rako hurrengo urratsak zeintzuk dira?**

**A. A.** Lehenbizi, eta aspalditik eragile guztiak eskatzen ari direna; guztia jaso eta koordinatuko duen web gune bat martxan jartzea. Batetik, eragileen arteko harremanak errazteko, eragile bakoitzak antolatzen dituen ekintzak ikusi ahal izateko. Parte hartze prozesuan jaso zen



AZARDUAN ELKARTU ZEN KULTUR AHOJKU BATZORDEA UDALBATZA ARETOAN.

baita, antolaturiko ekintza bakoitzari kritika eraikitzailea egiteko fitxa bat jartzea. Faltan botatzen baitzen, ekintzak egiten direla baina gero askotan ez dugula baloraziorik egiten.

### AHOJKU BATZARRA

“Urtarrilaren 11ko bilerako gai zentrala, diru laguntzak izango dira”

**N. Orain arte buruturiko parte hartze prozesua ez da hemen amaitzen. Aurrera segituko du beraz?**

**A. A.** Bai. Parte hartzea sustatzeko teknikak, moduak badirela ikusi dugu; talde txikitik bildu, lanketa egin, guztien iritzia bildu... Gauza horiek garrantzitsuak dira. Horretan ahaleginduko gara. Modu ofizialean, urtean halako hiruzpalau bilerak egiteko asmoa dugu. Urte hasieran, beti ere diru laguntzei lotuta lanketa bat egin beharko da. Datorren batzarrerako eguna jarri genuen; urtarrilaren 11rako, orduan onartzen baitira diru laguntzen oinarriak. Jada laguntzen oinarrien lanketarekin hasi gara; zer aldatu, zer ez. Lanketa hori aurretik bidaliko genieke partaideei eta urtarrilaren 11ko bileran guztien ekarpenak jaso nahi ditugu.

### “Kudeatzeko modua zorroztu egin nahi dugu”

**N. Aurrekontu berriek diru-laguntzak baldintzatuko al dituzte?**

**A. A.** Argi dugu lehentasunetako bat diru-laguntzak mantentzea izan behar duela. Azkenean herritarrak egiten duten lan hori bideratzeko modua delako eta altxor bat delako hori. Horiek mantentzeko esfortzua egingo dugu, gero zer aterako den ezin dugu aurreikusi, hor faktore eta zirkunstantzia asko daude. Gero horitik zer eskaera dauden eta ekintza bakoitza zer mailatan lagunduko den, beste kontu bat da. Gestionatzeko modua behintzat zorroztu nahi dugu. Kulturaren eta oro har diru laguntzetan. Kiroletako diru laguntzak ere izango dira. Aurten gainera, ingurumenari loturiko diru laguntza deialdi bat aurrera ateratzea aurreikusten dugu. Ez da gai berria. Iaz kulturatik bideratzen ziren ekintza asko, ikusten zen ingurumenarekiko lotura zutela. Azkenean, nolabait esateko diru laguntzak arloka banatuko dira. Ongizate diru laguntzak ere hor egongo dira.

# Kultur eraikin berria “urte hasieran irekitzeko moduan izango gara”

NOAUA! Kultur etxe berria, noizko ikus dezakegu irekita?

Alaitz Aizpurua. Lanak luzatu dira. Ekipamendurako lizitazioa martxan dago jada. Aholku batzordean honen inguruko lanketa polita egina dago; kultur etxe berriaren erabilpenak nolakoa behar zuen eta horri lotuta ekipamenduak nolakoa behar zuen. Hiru astean jada esleipen hori egingo da. Abendua ekipamendu horiek sartzeko momentua izango da. Teknikariak ere bertara lekuz aldatu ostean, datarik ez dugu, baina urte hasieran irekitzeko moduan izango gara.

## IZENA AUKERATZEN

“Arrillagaenea edo Potxoenea, eztabaida hor dago. Iritzi asko ematen ari da jendea”

N. Kultur etxeari zer izen jarri, horren inguruan eztabaida piztu da. Zertan da gaia?

A. A. Jatorrizko etxearen izena Arrillagaenea izango litzateke, dokumentua dago. Potxoenea ezizen bat da berez. Zalantza hor dago; jatorrizko izenera bueltatu, edo Potxoenea izena jarzea. Hor dago eztabaida, iritzi asko ematen ari da jendea.

N. Ikuspegi desberdinak jasotzen ari zarete?

A. A. Bakoitzak etxean galdetu eta testigantza jaso dezala. Jendea iritzia ematen ari da eta bidal ditzake udal kultura departamendura (kultura@usurbil.net). NOAUA!-ko web orrialdean eta Facebooken ere bada eztabaida, aberatsa gainera. Herritar batek zioen moduan, Usurbilgo historiari atzera begirada bota eta testigantza hori jasotzea polita da, aberatsa. Gero izena erabakiko da. Historiari, toponimiari, herritarrei, denei zor zaie errespetua.

N. Piztu den eztabaida ikusita, izenaren aukeraketa zer modutan egitea



ALAITZ AIZPURUA, POTXOENEA BEZALA EZAGUNA DEN ERAIKIN BARRUAN.

aurreikusten duzue?

A. A. Inpresioak partekatu eta guztiekin hitz egingo dugu. Bideak erakutsiko du zer izen hautatu.

N. Kultur etxe berrira joateko luzatu gonbita herritarrei...

A. A. Denen leku eta etxe bat izan behar du. Elkar gune bat izango da, eragile guztiak biltzeko puntu bat. Kariño handiz egindako lana izan da. Erabiliko dugun guztiok hala tratatzen jarraitzea espero dugu. Lehenbailehen ireki nahi dugu.

## Ekitaldiak Euskararen Egunean

Larunbat honetan, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Horren haritik, Usurbilgo Udala mozioa onartzeko astearte honetako osoko bilkuran. Alaitz Aizpurua zinegotziak berri eman duenez, lau puntuko testuan honakoa jasotzen da; udal langileen euskalduntzea eta Udalaren barne funtzionamendua euskaraz izatea bermatzea, hizkuntz eskubide indibidual eta kolektiboen alde egin eta euskaraz bizitzeko plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzea.

NOAUA! Euskararen ezagutza altua den bezala, adin tarte batzuetan erabileraz ez da maila berekoa. Abenduaren 3an, Usurbilen ere Euskararen Egunez gogorarazteko bada arrazoirik beraz?

Alaitz Aizpurua. Euskararen Eguna ez zaigu inoiz ahaztu behar. Usurbil arnas gune bezala kontsideratua dago UEMA

barruan, herri euskalduna, euskaraz gabiltzan herri bat garelako. Euskararen kale erabilera neurketa orain egin da, urria azaroa tartean. Aurtengoan, neurketa auzoetara ere eraman dugu. Datu horiek markatuko dute Usurbilgo errealitatea. Oraindik ez ditugu emaitzak esku artean. Esan erabilera altua dela, baina zenbait adin tarte edo guneetan gaztelerarako joera nabarmena dela kontziente gara denok.

Abenduak 1, osteguna

19:00 Pizza tailerra Agerialden, Etumeta-AEK euskaltegiak antolatuta. Irakaslea: Igor Gorriti sukaldari usurbildarra. Izen ematea: 943 372 001.

Abenduak 3, larunbata

11:00 “Euskaljoko” frontoian, ITAYA-k antolatuta. Euskal piropo lehiaketa eta sari banaketa. Hamaiketakoa.

## Urtariletik aurrera, sexu-aholkularitza gunea

**A**rreta eta informazio zerbitzua, heziketa eta sentsibilizazioa bultzatuko dituen sexu aholkularitza gunea izango du Usurbilek, urte berria hastearekin batera. Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Zerbitzutik abian jarri den egitasmoak herritarren artean errespetuan oinarrituriko harremanak bultzatu nahi ditu, parekidetasuna biztanlerian. Herritarren proposamenak jasotzeko komunikazio bideak zabaldu dituzte jada.

Elena Jimenez Sexune elkarteko sexologia arduratuko da sexu-aholkularitza gune berriaz. Datorren urtarilerako zerbitzu berria martxan izateko prestaketa lanak abian dituzte jada, eta baita esku artean, diseinaturiko plan bat ere. Hiru lan ildo nagusi jorratu nahi dituzte, gune berriaren bidez. Alde batetik, herritarrei zuzenduriko arreta zerbitzua egongo da. Jimenezek NOAUA!-ri argitu dionez, arreta pertsonalizatua eskaini nahi zaio herritar orori, konfidentzialtasun eta diskrezio osoz. Baina zerbitzua zabalagoa izatea nahi du Sexuneko kideak, "sexualitatearen inguruan egon daitezkeen kezkei, zailtasunei erantzutea" da euren asmoa.

### Prebentzio kanpainak

Alor honetako heziketa ere bultzatu nahi da, formazio jardueren bidez. "Ikastaroak ikastetxeetan, herriko sektoreei zuzendutako tailerrak, hitzaldiak, bideo forumak..." azaldu du Jimenezek. Hirugarren lan ildo nagusia sentsibilizazioa izango da. "Gizarte sentsibilizazio lanak ere egingo dira; biztanleriari zuzendutako prebentzio kanpainak", adibidez. Horrekin guztiarekin, alor honetan dauden hutsuneei koordinaturiko elkarlanean aurre egitea ahalbidetu nahi du Jimenezek; argitu duenez, Usurbilgo herritar, eragile eta erakundeekin elkarla-



GIZARTE ZERBITZUEN BULEGOAN IZANGO DA SEXU AHOULKULARITZA GUNEA.

nean hain zuzen. Alde horretatik, "lehenengo erronka, hurbileko erreferente batean bilakatzea litzateke", azaldu du Sexune elkarteko kideak.

### ZERBITZUAK

"Aholkularitza, informazioa, sentsibilizazioa eta orientazioa eskainiko dira"

Gune berria zerbitzu egonkorra izateko asmoz jarriko da martxan eta herritarrengandik gertuko erreferentzia bat izatea nahi dute. Usurbilen burutu nahi duten lanketarekin etorkizunean bete nahi duten helburua, Jimenezen esanetan, "Usurbilgo biztanleak pertsonen arteko harreman errespetagarriak, arduratsuak eta egokiak izan ditzaten lortzea da, ondorioz, gizarte parekidea, solidarioagoa eta bidezkoagoa lortuz".

### Urtariletik aurrera

Aipatu moduan, urtarilean jarriko da martxan Usurbilgo sexu-aholkularitza gune berria. Baina 2012. urtea hastearekin batera, Gizarte Zerbitzuen egoitzan kokatuko den zerbitzu berrirako proposamenik duenak, erabilgarri ditu jada komunikazio bide desberdinak. "Herritarrek egin ditzatela proposame-

nak. Herritarren bizipen eta beharretatik bideratzen bagara hobeto. Horiek dira lehentasunak", adierazi du Jimenezek.

### Gizarte Zerbitzuen egoitzan

E-posta: [sexuaholku@usurbil.net](mailto:sexuaholku@usurbil.net)  
Tlf zenbakia: 697 919 516.

Jendaurreko ordutegia: asteartero, 17:00-19:00 (urtariletik aurrera).  
Helbidea: Kale Nagusia 43, behea (Gizarte Zerbitzuetako egoitza).

Eskaintzen den zerbitzua: aholkularitza, informazioa, orientazioa eta sentsibilizazioa.

### 31 gazte Gaztelekuko sexu heziketa tailerlean

**A**zpimarratzeko moduko harrera izan du Gaztelekuak azken asteotan antolatu duen sexu heziketa tailerreak. Guztira, 31 gaztek parte hartu dute, Eider Goiburu adituak 12-16 urte arteko gazteak biltzen diren gunean bertan zuzendu dituen bi saioetan. Ikastaro laburra amaituta, orain eguberrii begira dira Gaztelekukoak. Hainbat ekimen antolatu dituzte urte amaierako oporraldirako; futbol edo dardo txapelketak, Txuri Urdir izotz jauregira edota Bilbora irteerak...

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL  
677 37 34 66  
943 36 21 78

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**txirriStra**  
TABERNA  
-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



## 23 kaltetuk jo dute udal informazio zerbitzura

**U**surbilgo Udalak azaroko lehen asteburuan izandako uholdeek eragindako kalteen informazioa biltzeko zerbitzua martxan jarri zuenetik, gutxienez 23 herritarrek euren egoeraren berri eman dute jada. Kasu gehienetan, erriberatan lur eremuak dituzten herritarrak dira. Abenduaren 7ra arte zabalik jarraituko du aipatu udal zerbitzuak.

Txikierditik hasi eta Aginagaraino, tar-tean Zubieta, Atallu eta Santuenea inguruak igarota. Eremu hau da azaroko lehen asteburuko uholdeek gehien kalte-tu zuten ingurunea; lur sailak bereziki, nahiz euriteek eragindako triskantzen artean etxebizitza batzuk ere egon. Usurbilgo Udalera jo duten herritarrek azaldu dutenaren arabera, baratzak, nekazal lurak dira kaltetuenak.

### Abenduaren 7ra arte zabalik

Uholdeak gertatu eta egun gutxira jarri zuen Udalak informazio bilketarako zerbitzu hau, tramiteak erraztu



BARATZAK ETA NEKAZAL LURRAK IZAN ZIREN KALTETUENAK (ARGAZKIA: DJ LARRA).

asmoz. Aipatu udal zerbitzutik berri eman dutenez, bitartekaritza lana egiten ari dira. Asteotan bildutako datuak, Foru Aldundira eta espainiar gobernuko Gipuzkoako delegaziora helaraziko dituzte gero.

Zerbitzu honetara jo ez duen herritarrik baldin bada, abenduaren 7ra arte, udaletxera gerturatu eta bere egoeraren

berri emateko aukera du oraindik. Udaletik berri eman dutenez bestalde, espainiar gobernuko Gipuzkoako ordezkariak kaltetuek jaso ditzaketen laguntzen inguruan zenbait jarraibideren inguruko informazioa ematen ari da. Zehaztasun gehiago, usurbil.net web orrialdean edo udaletxean bertan jaso daitezke.

## Abenduaren 18an, **Santo Tomas** azoka Har ezazu parte **babarrun** eta **sagardo** lehiaketan




Partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bat aurkeztu beharko du. Sagardo lehiaketan, aldiz, zortzi botila.



Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten babarrun eta sagardoak ekarri beharko dira NOAUA!ko egoitzara.

**Izen emateko datak: azaroaren 28tik abenduaren 2ra eta abenduaren 12tik 15era (lau datak barne).**

Informazio gehiago: 943 360 321





## Euskarazko Produktuen Katalogoa 2011-2012

Musika, liburu eta ipuinak, filmak, jostailuak eta jolasak... atal bakoitzeko produkturik egokienak aukeratu behar dira Euskarazko Produktuen Katalogoa osatzeko. Ez da lan makala. Eta musikari dagokionez, lan horren ardura daukana, Jon Ander Ubeda musikaria da, besteak beste. Bere zereginaren nondik-norakoaz, euskal musikaren egoeraz eta autoprodukzioaz galdetu diogu.

Zertan oinarritu zara aukeraketa egiterako garaian?

Hasteko eta behin gurea talde lana dela esango nuke. Nafarroako Kulturkari elkarteak prestatzen du katalogoa eta enkargua Malores Etxeberriaren eskutik jaso nuen. Batzuk eta besteak estimatzen ditudanez, atsegin handiz lagundu diet katalogoa osatzen.

Oinarritzko elementuak kontuan hartu ditugu aukeraketa egiteko garaian. Batetik, lurraldetasuna. Euskal Herri osoko proposamenak kontutan hartzen saiatzen gara. Bestetik, ahalegintzen gara musika joera eta estilo ezberdinak katalogoan txertatzen. Eta, azkenik, bilaketa lan berezia egiten dugu diskete handiak, ertainak nahiz autoekoizpenak bertan izan daitezzen.

### ESKAINITZA OPAROA DA

“Gehien kontsumitzen diren produktuez gain, beste proposamenen berri ematea da katalogoaren xedea”

Aukeraketa urrirako egin behar izaten duzue. Denbora aldetik ondo moldatzen al zarete disko berrienak, hau da, azken ordukoak katalogoan sartzeko?

Ahalegin berezia egiten dugu, baina ez da erraza. Hainbat disko interesgari sartu gabe geratu diren sentsazioarekin bukatu behar izaten da katalogoaren ekoizpen lana. Izan ere, liburuxka inprenta-makinan sartzeko orduan, hainbat diskoren portadak eta izenburuak erabakitzeak daude oraindik. Lastima!

Ze talde edo ze estilotako musika kontsumitzen da gehien?



KATALOGORAKO MUSIKAREN AUKERAKETA JONI UBEDAK EGIN DU.

Datu zehatzak falta zaizkit, baina orokorrean Pirritx eta Porrotx, Ken Zazpi, Berri Txarrak,... horiek dira gehien entzuten diren taldeak. Eta katalogoaren xedea da, beste proposamenen berri ematea, musikazaleak esku artean aukera gehiago izan dezan.

Iritzi bat badago esaten duena gaurko talde gehienak oso tankerakoak direla, ze irizten diozu? Estilo aldetik, letra aldetik...

Lasai asko geratuko zen, gainera, iritzi hori bota zuena! Belaunaldi bakoitzak bere joerak ditu. Garai batean heavy-a nagusi zen, ondoren rock-a eta metal-a, berriki hip-hop eta rap-a,... joera horien ondorioz estilo bereko taldeak sortu ohi dira entsaiatzeko lekuetan. Baina euskaraz egiten den musika, bere osotasunean kontuan hartuta, estilo anitzekoa da. Eta berriro diot, maila handiko musika proposamenak dauzkagu. Zorionez.

Publierreportajearen egilea: Hernaniko Kronika.  
Argitaldaria: Buruntzaldeko euskarazko hedabideak.

“Katalogoa oso baliagarria da bai gurasoentzat bai dendariontzat ere”

Katalogoa baliagarria eta eragin-garria al da? “Bai, oso baliagarria”. Halaxe azaldu dute Gigi Quevedo eta Garikoitz Plazaola Hernaniko Sebas eta Andoaingo Ernaitza liburudendetako jabeek. “Katalogoa erreferentzia bezala erabiltzen dute gurasoek”, azaldu dute bi dendariak. Eta gurasoentzat baliagarria izateaz gain, dendarientzat ere oso baliagarria dela diote, “merkatuan zer dagoen jakiteko”. Gainera, Quevedok azpimarratu du oso positiboa dela euskarazko produktu ezberdinak ezagutzera emateko, “bestela betiko lau gauzak ezagutzen ditu jendeak”.

Bezeroek, katalogotik eskatzen duten edozer gauza ekartzeko prest baldin badira ere, dendariak aukeraketa egin behar izaten dute, lekuagatik eta diruagatik. Eta aukeraketa egiterakoan, norberak bere irizpideak erabiltzen ditu. Quevedok dio euskaraz argitaratzen den guztia ekartzen saiatzen dela, baina prezioari ere begiratzen diola: “25 eurotik beherako prezioa duten produktuak saltzen dira. Hortik gorakoa bueltaka gertatzen da”.

Zer da gehien saltzen dena?

Liburuak, ipuinak, joku eta jostailuak dira batez ere saltzen diren produktuak, normalean. Jokuetan Mihiluzek arrakasta handia du. Gaztekeraz existitzen diren produktuen itzulpenek ere ondo funtzionatzen dutela dio Sebaseko jabeak. Eta badira edozein motatako eta prezio-tako produktuak izanda ere, arazorik gabe saltzen direnak: Pirritx eta Porrotxen produktuak, hain zuzen. “Horiek ez dute katalogo beharrik!”, dio Plazaolak.



## Katalogo berria, paperean eta sarean

200.000 ale paperean, eta Interneten [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) helbidean

Urteko garai honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute. Beste urte batez (aurtengoa 14. edizioa da), Euskal Herriko 100 bat udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek. Euskal Herriko hainbat lurraldetako teknikariak elkarlanean aritzen dira katalogoa prestatzeko.

### Egokitasuna eta kalitatea

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu edizio berri honek.

Merkatuan dauden produktuen artean aukera bat egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informati-

ka produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren araberrako banaketa egiten da.

### Urte osoan eguneratua

[www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean, paperean jasotako produktuez gain, merkatuan aurkitu daitezkeen beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, argitaleraren denda birtualera iristeko produktuaren gainean klik eginez eta, nahi izatera, begiz jotako produktuaren erosketa etxetik egiteko.

Urte osoan zehar bizirik eta eguneratua dagoen gunea da, eta produktuak adinka, prezioa eta atalka bilatzeko aukera ematen du. Euskarazko Produktuen Katalogoaren webgunea urte osoan kontsulta daiteke, eta irakurleek, beren iruzkinak eta komentarioak egin ahal izango dituzte bertan, irakurri,



WWW.KATALOGOA.ORG ATARIA.

ikusi, entzun edota jostatzeko hautatu duten produktuaren inguruan.

### Buruntzaldean, 9.000 ale

Paperezko edizioari dagokionez, aurtengoa 200.000 ale inguru banatu dira Euskal Herri osoan eta Buruntzaldean 9.000 inguru. Banaketa, 0-16 urteko haur edo gazteren bat dagoen familia guztietara egin da, herri batzuetan ikastetxeen bidez eta beste batzuetan posta bidez.

BABESLEAK:  
Arabako Foru Aldundia  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Eusko Jaurlaritzak  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Nafarroako Gobernua  
Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)



musika | filmak | aldizkariak  
komikiak | liburuak  
gurasoentzako materiala  
informatika | jostailu eta jokoak

[www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)  
[info@katalogoa.org](mailto:info@katalogoa.org)

[www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)



# Ofizioen gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

663 08 76 71  
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L.

teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79  
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atellu pol. atellu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Errazkin S.L.**

igeltseritza orokorra  
943 372 679 eta 649 435 470

kale nagusia 47, behea A



**ANORGA TXIKI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE  
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,  
klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo  
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA  
ARANGUREN  
ITURGINTZA

943 83 00 72  
659 88 39 12



**Antonio URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Astesvain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Imanol  
AROSZTEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

**izagirre**  
Elektrizitatea

Apdo. 37  
943 36 50 95  
609 06 81 11  
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37  
Kale Zahar Auzoa

**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**PLAKODUR**  
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



MARGOAK - PAPERAK  
**FERNANDO PINTORAK**  
ENPAPELAKETAK eta  
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19

## Zuberoako Eperra ikastolaren aldeko hainbat ekitaldi iragarri dira

**E**manaldi eta hitzaldi bana antolatu ditu Nafartarrak taldeak abenduaren 16, 17 eta 20rako, Zuberoako Eperra ikastolaren alde burutuko duten kanpainaren baitan hain zuzen. Sohütako ikastola laguntzeko kanpaina ere ez da amaitu. Gabonetako otarrak eskatzeko epeak zabalik jarraitzen du.

Eperra ikastolaren aldeko kanpaina hitzaldi batekin abiatuko dute Nafartarrak taldekoek. Angel Rekalde eta Beñi Agirre Euskal Herriko historiari mintzatu dira abenduaren 16an, 19:00etatik aurrera Sutegin. "Orreaga 778ko bataila ezagutzen dugu, Karlomagnori irabazi zitzaionekoa. Hura ez zen izan, ordea, frankoen kontrako gudaldi bakarra, ezta baskoiek jokatu zuten garrantzitsuen ere. Hirugarrenak erabaki zuen euskaldunok gaur garena", aurreratu dute antolatzaileek.

Mixel Etxekopar eta bi talde kideen emanaldia ere lotu du Nafartarrak taldeak. Iparraldeko musika eta antzerkia uztartuko dituen emanaldiaz gozatzeko aukera izango da abenduaren 17an Sutegin, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Sarrerak egunean bertan egongo dira salgai, 6 eurotan. Kanpaina astea borobiltzeko Mauleko alkate Michel Etxebestek hitzaldia eskainiko du kultur etxeko auditorioan. Xiberoko ekonomiaren egoeraz jardungo du, abenduaren 20an.

### Abenduak 16, ostirala

19:00 Angel Rekalde eta Beñi Agirreren hitzaldia.

### Abenduak 17, larunbata

20:00 Mixel Etxekopar eta bere taldearen emanaldia.



MIXEL ETXEKOPAR SUTEGIN  
ARITUKO DA ABENDUAREN 17AN.

### Abenduak 20, asteartea

19:00 Michel Etxebeste Mauleko alkatearen hitzaldia.

### Otarrak eskatzeko epea zabalik oraindik

Sohütako ikastola laguntzeko kanpaina ere abian dute Nafartarrak taldekoek. Otarrak eskatzeko epeak zabalik jarraituko du, abenduaren 10era arte. NOAUA!-ra deituta (943 360 321) edo Txiribogan eta Bordatxon. Honako bi saski hauek daude aukeran:

#### Ahuski otarrea

Prezioa: 37 euro.

Produktuak: ardi gazta (1 kg), ezta (500 gr), ahate gibelarekin eginitako pate (200 gr), bizkotxo poltsa bat (200 gr).

#### Irati otarrea

Prezioa: 50 euro.

Produktuak: ardi gazta (1 kg), ahate gibelarekin eginitako pate (200 gr), bizkotxo poltsa bat (200 gr) eta axoa txahalki xehatua saltsan (750 gr).

### Beñat Gaztelumendi, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean

**B**ota Punttuba Bertso Eskolako kide Beñat Gaztelumendi bertsolaria Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako sailkatu da asteburuan. Abenduaren 18an Donostiako Illunben ospatuko den saio nagusian izango da aňorgarra. Agortu bitartean txartelak eskuratze-ko aukera bada oraindik, Txiribogan, 18 euroren truke. 12 eurotan bazkideek eta 8 eurotan 16 urtetik beherakoek. Bestela, txapelketako web orrialdean sartuta ere lor daitezke. [www.gpuntua.com/sarrerak](http://www.gpuntua.com/sarrerak)

### 1977an jaiotako kinto bazkaria

**K**into bazkaria antolatu dute 1977. urtean jaiotako herritarrentzat. Otordua Iruin sagardotegian ospatuko dute, abenduaren 17an. Izena alde aurretik eman behar da, Irrati eta Karobi tabernetan, hilaren 16a baino lehen. Informazio edo argibide gehiago 660 614 715 telefono zenbakian.

### Datorren astean ez da NOAUA! astekaririk izango

**D**atorren asteko jai egunak tar- teko, ez da NOAUA! astekaririk izango. Hurrengo alea abenduaren 16an argitaratuko dugu. Zorion agur, ohar edo bestelakorik izanez gero, abenduaren 12a baino lehen ekarri beharko da NOAUA!-ko egoitzara edo e-postaz igorri:

[erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BENTA  
TABERNA**  
HANBURGESAK  
Oilasko erreak  
Ogitartekoak  
943 36 93 05

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

## Gu ere artista!


**G**elan Udazkenaren gaia lantzen ibili gara eta gaiarekin batera egin ohi dugun arte-lana erakutsi nahi dizuegu gaurkoan. Gai honetan Agustin Ibarrolaren "Naielen ostadarra" landu eta bakoi-tzak gure ostadarra sortu dugu.

Zuek etxean egin nahi baduzue, jarraian dituzue eman beharreko pausuak, animatu!

Osagaiak:

- Parkean edota mendian jasotako makiltxoak.
- Arrautzaren kartoizko ontziak.
- Plastilina.
- Pintura.
- Ixipuak/pintzelak.
- Kola.

1.-Makilak koloretako pinturarekin margotu eta arrautzaren ontziak



moztu eta margotu.

2.-Plastilinaz bete arrautza ontziaren zulotxoak eta ondo zapaldu.

3.-Margotutako makilaren punta kolaz busti eta plastilinaz betetako zuloan sartu.

4.-Egindako lanari zuk asmatutako izena jarri eta kitto, amaitu duzu!

A ze artista kuadrilla!

HH4ko haurrak



**K**aixo lagunak; lehen hiruhileko honetan, gure herriari buruzko gauza asko Kikasi ditugu. Irteera bat ere egin genuen herritik zehar eta ikusi zein argazki polita atera genuen! Ezetz aurkitu bi argazkien artean dauden 7 desberdintasunak!!!

LH 3. mailakoak

### Abenduaren 8an, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots kiroldegian

**E**guberrien atarian, abenduko Ehirugarren asteburuan Argiaren Lagunak bilgunekoek antolatu ohi duten Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia, lehenago ikusteko aukera izango da aurten. Abenduaren 8an bisitatuko dute Oiarde Kiroldegia, "Zazpikoloroa" izeneko ikuskizun berriarekin. Emanaldi bikoitza eskainiko dute, arratsaldeko 16:00etan hasita lehenengo, eta 18:30etatik aurrera bigarrena.

### Sarrerak salgai Marijen, Bordatxon eta Kiroldegian

Sarrerak egun berean eskuratu ahal izango dira, baina baita saioko eguna baino lehen. Marije arropa dendan, Bordatxon eta Kiroldegian eskuratu ahal izango dira, 6 eurotan. Edo 7 euroren truke egunean bertan. Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, 12 hilabete arteko hurrek sarrera doan izango dute.



12 HILABETE ARTEKO HAURREK  
SARRERA DOAN IZANGO DUTE.

**JATETXEA - TABERNA**  
**BELARTZA**

© 943 37 60 82

### Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Atsedan egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN  
Poligono Belartza • Gunitzegi kalea, 15 - A4 Pabilioa • Donostia

### Haginak ondo dabilzanean, sabela poz! **USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

## Argazki Lehiaketako sariketa Mendi Astearen baitan ospatuko da

**A**bian da Andatza Mendizale Elkartekoek egunotarako antolatatu duten Mendi Astea. Lotu duten egitaraua irteera eta proiektzioez hornitua dator. Bide batez, ekitaldi hauetan jarriko duten mahaian, 2011ko federatu txartelak berritzeko aukera egongo dela.

### Abenduak 1, osteguna

19:00 Bideo eta argazki emanaldia Felipe Uriarteren eskutik: 2008ko uztai-lean, euskal espedizio bat Koskulak mendia- ren gailurrera iritsi zen. Tontor hau Kunlun mendikatean dago, Zetaren Ibilbidearen hegoaldeko adarrean. Bideo honek, igoera hau ez ezik, Zetaren Ibilbidearen historia ere kontatzen du.

### Abenduak 2, ostirala

19:00 2011. urtean Andatza Mendizale Elkartek antolatutako mendi irteeren bideo eta argazki emanaldia. Ondoren, Usurbilgo Andatza Mendizale Elkarteko 1. Argazki Lehiaketaren sariak banatuko dira.

Amaieran luntxa eskainiko da.



ANDATZAKO IRTEERATAKO PROIEKZIOA  
ESKAINIKO DUTE OSTIRALEAN SUTEGIN.

### Abenduak 3, larunbata

8:00 Usurbildik irtenda, mendi ibilaldia burutuko da.

Ondoren, bazkaria Patri jatetxean irteeran parte hartu dutenekin. Bazkarirako plaza kopurua mugatua da eta joateko izena alde aurretik eman beharko da, ikus-entzunezko saioak programatu diren egunetan, Sutegin.

### II. San Silvestre lasterketa

Abenduaren 31ko lasterketan izena emateko epea abenduaren 5ean irekiko da, noaua.com web orrialdean eta Hurbilgoko establezimenduetan.

## Usurbildarrak garaile, Gipuzkoako Pilota Txapelketan

**A**steburuan jokatu diren Gipuzkoako Pilota Txapelketako finalerdiak usurbildarrak izan dira garaile. Batetik, nagusien lehen mailan, eskuz binaka Xabier Santxo eta Julen Urruzola nagusitu ziren, Azpeitiako Ilunpe taldeko Markel Etxaniz eta Andoni Aizpururen aurkako neurketan; 15-22 izan zen, Ikaztegieta jokatu zuten neurketako azken emaitza. Garaipen horretan bere ekarpena, Iñigo Altuna pilotariak ere egin du, finalerdian parte hartu baitzuen. Bestalde, nagusi mailan, eskuz binaka Ibon Aranaldek irabazi zuen



XABI SANTXO ETA JULEN URRUZOLA  
TXAPELDUN IZAN BERRI DIRA.

Bergaran, hango herriko taldeko Eneko Muguruzaren aurka igandean jokaturiko partida; 16-22 azken emaitza. Zorionak guztioi!

### 9 domina gehiago,

### Usurbil Judo Klubarentzat

**U**surbil Judo Klubak senior mailako Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen joan den azaroaren 19an, eta ohi denez, domina sortarekin itzuli dira.

**Urrezko domina:** Eduardo Laca (-66 kg), Ion Martin (-73 kg), Beñat Aburuza (-81 kg), Miriam Gonzalez (-52 kg), Johanna Elola (-57 kg), Maialen Zubeldia (-63 kg) eta Nerea Arruti (-70 kg).

### Zilarrezko domina

Eneritz Agoñes (-48 kg).

### Brontzezko domina

Andrea Arruabarrena (-57 kg).

Senior mailako neurketen ostean, gaztetxoenen sailkapen proba jokatu zen. Herriko judoka hauek sailkatzea lortu zuten: Josu Ruiz (-66 kg) eta Mikel Sanz (+66 kg). Manex Aburuza (-46 kg), Mikel Formoso (+66 kg) eta Alba Vicente (-44 kg). Joxe Arruebarrena (+66 kg).

### Usurbildarrak Maratoian

JON CARBAYEDA	02:33:54
IÑAKI GERICA JUAN	02:47:19
KOLDO MANTEROLA AIZPURUA	02:49:25
AITOR OTAMENDI LIZARAZU	03:21:37
JUAN MARI AGOTE GOYARAN	03:47:35
ALFONSO LOPEZ GARCIA	03:55:05
JOXEMARI PORTU AZPIROZ	04:00:05
LEIRE ALBIZU ARRIETA	04:14:18
IBAN MARITXALAR	04:14:19
ZURIKO LATAILLADE AIZPURUA	04:23:51
AITOR ARRUTI BELDARRAIN	04:23:51



Eskubalo partidak, abenduak 3 larunbata

Senior mutilak, 2. Territoriala. 13.00h.

Usurbil K.E. - La Salle Legazpi

Kadete neskak, Euskal Liga. 16.00h.

Usurbil K.E. - Urdaibai E.T.

Jubenil neskak, Euskal Liga. 17.30h.

Usurbil K.E. - Urdaibai E.T.

Senior neskak, Euskal Liga "A". 19.00h

Atez Ate Usurbil - Aiala Zarautz

## Jostailu Azokarako produktu erabiliak, abenduaren 14tik 16ra bilduko dira

**N**irea zuretzat, zurea niretzat... Aizu tori eta ekarri hori! lemapean bosgarrenez antolatua du Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkartek, Jostailu Erabilien Azoka. Abenduaren 17an egingo da azoka baina trukerako produktu erabiliak aldeztatik jasoko dira.

Abenduaren 17an ospatuko da frontoian. Eguberrien atarian, goizeko 11:30etan hasi eta 13:00ak arte, aisialdirako baliatu ohi diren produktuak elkar trukatzeko aukera izango dute herritarrek. Edizio honek badakar berrikuntzarik. Antolakuntzatik adierazi dutenez, Gaztelekukoek azoka eguna dinamizatuko dute.

Ekimenean parte hartu nahi duenak, azokarako gaiak lehenago utzi beharko ditu, abenduaren 14tik 16ra Sutegiko erakusketa aretoan, hain zuzen. Ordutegi honetan; arratsalde, 17:00-19:00 artean.

### Psikomotrizitate hitzaldiak

Hitz Aho Guraso Elkartek Haur Eskolan duen taldeak haur psikomotrizitateari buruzko bi hitzaldi antolatu ditu, 0-3 urte arteko haurrak dituzten gurasoentzat. Haur Eskolan bertan eta doan. "Psikomotrizitateak oso leku garrantzitsua dauka Haur Hezkuntzan, pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetzen duen, errazten duen eta suspertzen duen gaitasun gisa hartzen den aldetik. Mugimenduak, ekin-tzak, jolasak eta hautemandako plazerra haurraren garapen pertsonalaren gako bilakatzen dira". Hona hemen bi saioetako hitzorduak:

#### ABENDUAK 12, ASTELEHENA

17:00 0-2 urte arteko haurrak dituzten gurasoentzat.

#### ABENDUAK 13, ASTEARTEA

17:00 2-3 urte arteko haurrak dituzten gurasoentzat.

#### Izen-ematea

Informazio gehiago, Haur Eskolan edota uegurasoak@gmail.com helbidera e-mail bat bidalita.



HITZ AHOK ANTOLATU DUEN AZOKA  
ABENDUAREN 17AN IZANGO DA.

### Laguardiako upategira bisita, Usurbiltzenekin

**H**eredad de Ugarte eta upategi ekologiko txiki bat ezagutzeko irteera antolatu du Usurbiltzen Elkartek, larunbat honetarako, abenduaren 3rako. Bisitaldi bakoitza bi ordu ingurukoa izango da. Gero bertan bazkalduko dute.

### Giza harremani buruzko hitzaldia Aginagan

**N**erea Mendizabal adituak giza harremani loturiko hitzaldia eskainiko du ostegun honetan, abenduaren 1ean, Aginagako ludotekan. "Erlazioak eraikitzen: zigor, mehatxu eta xantaiak ekiditen" izango da, arratsaldeko 17:30ean hasita jorratuko duen gaia. Ekitaldia, Antxomolantxa Elkartek eta San Praxku guraso elkar-teak antolatu dute.

### Ipuin kontalariak udal liburutegian

**A** benduko zubi osterako bi ipuin kontaketa saio antolatu ditu Usurbilgo Udalak Sutegi liburutegian. Hasteko, abenduaren 12an, Maite Frankoren saioa programatu dute HH4ko haurrei zuzenduta. Hiru egun beranduago, hilaren 15ean, Pello Añorgaren txanda izango da. HH5eko haurrentzat saioa eskainiko du. Bi ekitaldiak, egun desberdinetan baina ordu berean hasiko dira; iluntzeko 18:00etan.

### Abenduaren 13an, "Solos" dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia

**V**icente Rubiok bere historia pertsonala kontatzen du dokumentalean, eskizofrenian erortzen denetik nabarmen sendatzen den arte. Dokumentalaren ondoren, gaiaren inguruko bideoforuma izango da eta bertan izango dira AGIFESeko kideak. Abenduaren 13an asteartea, 18:00etan Sutegin. Proiektzioa gazteleraz izango da baina solasaldia euskaraz.



### Santuenea eta Artzabalgo tabernak kudeatzeko deialdia

**S**antuenea Gure Elkartea eta Artzabalgo Gure Pakea elkarteko bi tabernen kudeaketa esleitzeko deialdia azken txanpan dago. **Interesdunek abenduaren 5eko eguerdiko 14:00ak arteko tartea dute proposamenak aurkezteko.**

**Santueneako Gure Elkartea** jubilatuen lokaleko tabernaren erabilpen eta kudeaketaren kontratazioa:

-Xedea: tabernaren zerbitzua eta lokalaren garbiketa aurrera eramatea.

-Burutzeko epea: urtebete, beste hiru urtez luzagarria urtez urte. Gehienez ere, gutzira, 4 urte.

**Artzabalgo Gure Pakea** jubilatuen lokaleko portxea, sarrera, taberna, jangela eta behe oineko zerbitzu osagarrien erabilpena eta kudeaketa:

-Xedea: taberna-jantokiaren kudeaketa, zaintza, harrera eta behe oineko garbitasuna aurrera eramatea.

-Burutzeko epea: urtebete, beste hiru urtez luzagarria urtez urte. Gehienez ere, orotara, 4 urte.

Informazio gehiago: [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)

### Bakarrizketak Zubietan

**H**iru lagun bakarrizketa saioez gozatzeko aukera izango da Zubietan, abenduaren 16an. Zubieta Lantzenek hiru antzezle gonbidatu ditu Kaxkapera; Ion Martinez, Barry "Barrez" eta eurekin batera, herritar bat; Garbiñe Astiazaran. Gaueko 22:00etan hasiko da. Sarrera doan.



## Agenda !!

### Abenduak 1 osteguna

- Nerea Mendizabalen hitzaldia Aginagako ludotekan 17:30ean.  
- Bideo eta argazki emanaldia Felipe Uriarteren eskutik, 19:00etan Sutegin.

### Abenduak 2 ostirala

- Andatzakoen irteeren inguruko proiektzioa, 19:00etan Sutegin.

### Abenduak 3 larunbata

- Andatzakoen mendi irteera, 8:00etan. Ondoren bazkaria Patrin.

### Abenduak 8 osteguna

- Pirritx, Porrotx, Marimotots, bi saio kiroldegian: 16:00 / 18:30 (ikus 14 or).

## Goardiako farmaziak

**Abenduak 1, osteguna**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 2, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abenduak 3, larunbata**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 4, igandea**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 5, astelehena**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Abenduak 6, asteartea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abenduak 7, asteazkena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abenduak 8, osteguna**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Abenduak 9, ostirala**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 10, larunbata**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abenduak 11, igandea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.

[www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean 2011ko egutegia

# Abenduaren 6an, Herria Garbi Eguna

**I**TAYA Gazte Asanbladak eta Usurbil Zero Zabor taldekoek abenduaren 6an ez dute jai egingo, auzolana baizik. Zumartegi industrialde inguruak garbitzera joateko hitzordua antolatu dute. "Gure utzikeria eta axolagabekeria dela eta alboan daukagun ingurumena zikintzen ibili gara urte askoan zehar, eta bada garaia behingoagatik honi amaiera bat emateko", adierazi dute antolatzaileek.



ERNIOKO KOBAZULDETAN IZAN DIRA DUELA GUTXI ITAYA TALDEKOAK.

Goizeko 8:30ean jarri dute elkartzeko ordua, frontoian. Handik auzolan lekura joko dute. "Aurkitzen den zaborra, hala nola; plastikoak, latak... garbituko ditugu. Ahal dugun neurrian birziklatuko ditugu", adierazi dute antolatzaileek. Eguerdia partean, 12:30ak alderako edo iragarria dute itzulera. Goiza hamaiketako eder bat dastatuz borobilduko dute.

## Didgeridoo tailerra

Akerra Gaztetxeak eta ITAYA Gazte Asanbladak didgeridoo tailer eta kontzertua antolatu dute, abenduaren 10erako. Iban Nikolaik gidatuko du ikastaro laburra Sutegin, 17:00etatik aurrera. Tailerra amaitu ostean, kontzertua eskainiko du Nikolaik Sutegin bertan, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Herritar orok parte har dezake ekimenean, eta doan.

## Odol emaien eguna

**U**rtero bezala, abenduaren 8an ospatuko da Usurbilgo Odol Emaien Eguna. 12:00etako meza eta ondoren bazkaria Antxetan. Aurretik eman behar da izena, honako telefonoetara deituz:

Patxi Arruti	615 760 458
Agustina Arizti	943 361 302
Maite Salaberri	943 366 040
Jero Tena	943 370 723

Otorduaren prezioa 33 eurokoa da eta azaroaren bukaera baino lehen eman behar da izena.

## Elkarte arteko mus txapelketa

**A**ginaga, Andatzpe, Mahaspildegia, Eguzki, Yoko Garbi, Aitzaga, Erroizpe, Peña Pagola eta Ibai Ondo elkarteak nor baino nor arituko dira musean, datorren abenduaren 17an. Elkarte bakoitzeko bina bikote izango dira, hamalagarraren edizioako txapela irabazteko lehian. Ekimena ospatzeko lekua eta antolakuntza lana urtero, elkarte elkarte txandaturaz doa. 2011koa Santueneako Ibai-Ondo prestatzen ari da eta bertan jokatu da txapelketa, aipatu moduan, hilaren 17an, arratsaldeko 17:00etan hasita.



BORDATXO  
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42



**Aliprox**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

#### ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisuak salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara eta igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, faxxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altxariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 3 logela, 2 bainu-gela, sukalde eta egongela. Tlf: 626 347 914.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukalde, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisu alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukalde, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat alokatzen da Etxealdian. 2 logela, sukalde, egongela. Eguzkitua eta berritua. 620 565 731.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudana pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaiten trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkooan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitua eta bizitzentzako jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garaiea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska eskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailen. Kalezarren. 665720913.
- Baserrit bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoo etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

#### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Opel Corsa 1.4 Twinport Ecotec 66kw/90 cv salgai. Aleazio lllantak 16, aurreko lainotako argiekien. Aire egokitu, ABS eta parrila. Gidari, kopilotu eta alboetako airbag-a. CD 30 MP 3 bolantean aginte-tresnarekin. Margotu berria eta neumatiko berrieekin. Gidari bakarra izan du orain arte. 88.500 km. Prezioa: 7.250 euro. 678 332 646
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 metrokoa, gutzira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Arzabal. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500,

IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.  
 - Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.  
 -50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

#### LANPOSTUAK

#### Lan-etsakerak

- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume eskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Zerbitzari eskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Lan egin nahi baduzu, deitu zerbaki hauek: 680 483 164 / 607 454 879
- Iratxo tabernan garai batenazale baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian gizona da. Beharrezkoa motorra edo korxoa izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta eskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitze Udaregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

#### Lan-etsakintzak

- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsaldez, edo zerbitzari moduan lan egin nahi nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska eskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... Tlf: 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta uskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume eskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehentik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduko zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboko, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zainzten edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziekin eskaintzen da guetean adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko perso-

- na zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltzeritza lanetarako. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteok orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zainzten edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest: 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

#### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Arratoi mestizo arrazako txakur bat oparitzen da. Urte eta erdiko, oso leiala. 666 454 930
- Hiru metroko bambu kanaberak trukerako edo saltzeko. 620 809 568 (Manu Aranburu).
- Gas naturalarekin funtzionatzen duen bost satako sukalde labarekin. Egoera onean eta oparitzeko, premiakoa da. 661 264 405 (arratsaldetan deitu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 616 260 451.
- 3 hilabeteko Seter ingeles arrazako txakur txikiak salgai Aginagan. 943361512 (eguerdikio 12:00etatik aurrera).
- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Mesedez, eraman gaitzazue. 635 714 030.
- Bellarritakoa galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- Kalezar auzotik txirindula bat desagertu da. 27 zazpi urte ditu, Peugeot marka, kolore zuria, emakumezko moduloa, palankazko kanbioekin koadro ondoan eta jarlekuan kokka bat dauka egin berria. 675 71 72 67
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Masajek ematen ditut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarre gastro-nomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaud: 669645585 / 943365191.
- Hemengo inoaxurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkintzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein abeltzaintzan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



**Zorionak Elur!!** Azaroaren 22an 7 urte bete dituzu. Hasi Tourrerako prestatzen eh! Muxu handia etxekoan partez.



**Zorionak Irati!** Abenduaren 4an 11 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



**Zorionak Ana!** Azaroaren 30ean, 4 urte beteko dituzu. Ongi-ongi pasa eguna, aitatxo, amatxo eta Hugo-ren partez.



**Zorionak Anje!** Ostiralean 2 urte handi beteko dituzu. Eskolara ekarriko duzu tarta goxoren bat? Zorionak Aginagako eskolakoan partez eta ondo pasa!



**Zorionak!** Azaroaren 30ean 6 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat, Imanol, Nikole, Martina eta Ximunen partez.



**Zorionak Uxue,** lau urte bete dituzu, eta handien gelan zaude jada. Maitasunez, aitatxok eta amatxok.

#### HILDAKOAK

**Juanjo Arrospide Iturralde** 61 urterekin hil zen, azaroaren 22an



ADI: datorren astean ez da NOAUA!rik izango; hurrengo alea abenduaren 16ko datarekin aterako dugu. Beraz, zorion-agurrak edo bestelako oharrak abenduaren 12rako astelehena ekarri behar dira, edo e-postaz igorri: erredakzioa@noaua.com



# zure ziztada behar dugu

Informazio eguneratua eta euskarri gehiago:  
[www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)

**berria laguna** izan nahi baduzu, bete datuak eta helarazi:

- [www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)
- Postaz: BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- Posta elektronikoz: [laguna@berria.info](mailto:laguna@berria.info)
- Telefonoz: 943-30 43 45

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

**berria laguna**

**berria**<sup>®</sup>



*Zorionak eta urte berri on!*



Egun osoa irekia • San Esteban auzoa • 943 362 255 • Faxa: 943 366 054 • [urtinea@urtinea.com](mailto:urtinea@urtinea.com)

# hurbilag<sup>o</sup> ren gabonetako saria

## Urduñako AISIA-HOTEL\*\*\*\* BAINUETXEAN

Aste buru baterako egonaldia, pentsio osoan, bi lagunentzat, ur termal eta masajerako sarrerarekin



**hurbilag<sup>o</sup>**  
Usurbilgo Merkataria eta Oribaitzen Egoitza

**IZENA:**

**MUGIKORRA:**

Markatuaren datuak behar izanean erabiltzeko 1304 11/1991 lege Organismo baten alimenduak datuak Erabiltze baimen gabea izango da. Hurbilag<sup>o</sup> erabiltzeko agian zuzen erabiltzeko arauak erabiltze dira. Hurbilag<sup>o</sup> erabiltze gisa erabiltze baimen gabea, baimenaren arauak erabiltze gabea, Hurbilag<sup>o</sup> erabiltzearen erabilera, parte zuzenaren erabilera, Hurbilag<sup>o</sup> 43 Pasa Eskualde 30170 Usurbil.

Zozketan parte hartzeko txartelak banatuko dira abenduan zehar Hurbilagoko establezimenduetan



Usurbilgo Merkataria eta Oribaitzen Egoitza

